Herrialde afrikar askotan elkarren segidako bigarren edo hirugarren lehorte-urtea da aurtengoa eta familia askok egoerari aurre egin ahal izateko baliabide guztiak ahitu ditu. Uztarik ezak eta aziendaren heriotzak elikagai-eskasia eragin dute eta lagun asko dira gaur egun gosetearen arriskupean bizi direnak.

Frogatutako gauza da eguraldiarekin erlazionatutako hondamendiak gehitzen ari direla urtetik urtera. Lehorte, zikloi, uholde eta abarrek kolpatzen dute planetaren zati handi bat eta asko dira uzten ekoizpenaren beherakada, ur-erreserben murriztapena eta abarren ondorioak jasaten dituzten gizarteak.

Afrikak oso eragin txikia du klima-aldaketan, balio absolutuetan zein biztanle bakoitzeko mailan oso karbono dioxido gutxi igortzen baitu. Kontinente honek energia eta industriatik datozen munduko karbono dioxido igorpenen % 2-3-a bakarrik isurtzen du. Hala ere, klima-aldaketaren ondorioak gehien jasaten dituztenetako bat da.

Baso-soiltzea da Saharaz beheko herrialdeen ingurune-arazo

nagusienetako bat. Zuhaitzak bota beharra eragiten duen eta eremu asko erabat soilduta uzten dituen ikatz eta egur eskari handia da zio nagusia.

Familiaren mantenturako dirua epe laburrean eskuratu beharrak luzera oso kaltegarriak suertatuko zaizkien arriskuak onartzera eraman ditzake giza talde asko. Etiopiako Nomina Tusu, lurrak ekoizten duenatik bizi da eskuarki. Aurtun, ordea, lehorteak uztarik gabe utzi du eta beste aukera batzuk bilatu behar ditu bere familia mantentzeko. "Inguruko egurra ebakitzen dut eta herriko azokara eramaten dut salgai. Hirian beti dago egur eta ikatz eskaria eta produktu hauek salduz eskuratzen dut nire seme-alabentzat laboreak eta ura erosteko erabiltzen dudana diru apurra. Zer besterik egin dezaket?". Bizi den eskualdea gero eta mortuago dago eta ondorioz lehorteak behin eta berriro errepikatzen dira, biztanleengan gero eta ondorio larriagoak dituztelarik. Zenbait herrialde irteera zaileko gurgil zoroan murgilduta bizi dira.


LEHORTEA ETA GOSETEA, HAUTS DEZAGUN LOKARRIA

Hala ere, herrialde afrikar askok pairatzen duen elikagai-krisia lehorteak ezandarazi duen arren, benetako zioak konplexuak dira eta herrialde batetik bestera aldatu egiten dira. Pobrezia, denbora alderraia, gobernagarritasun urria eta baldintza sozial eta ekonomiko jakin batzuen nahastea islatzen dute. Ematen dizkiguten albistegietan nekez ikertzen diren egitura-motako zioak dira gehien bat. Lehorteak ez dakar ezinbestean gosetea, eta horren erakusgarri da ezaugarri berdintsuko gosete batek Europa bezalako leku batean ez dituela urrundik ere ondorio berdinak eragiten.



Hondamendiak ez dira naturalak

Hondamendiak ez dira naturalak



Iturria: Karlos Pérez de Armiño (1994)

Zorigaitzak naturalak dira baina hondamendiak ez eta ez lirateke zorigaitz baten halabeharrezko ondorio bezala ikusi behar. Gizartearen baitako lagunei modu desberdinean eragiten diete zorigaitzek eta erasaten duten gizarte edo herrialdearen arabera oso eragin desberdina eduki dezakete.

Zorigaitz bat hondamendi bilaka dadin zaugarri diren pertsonak erasatea da beharrezko. Horrela, hondamendiak ez dira zorigaitz zehatz baten ondorioa bakarrik. Aitzitik, faktore sozial, politiko eta ekonomikoen emaitza bezala azter daitezke. Pertsonak euren zaugarritasun-maila murriztu badezakete, orduan zorigaitzek ez dute zertan halabeharrez hondamendia sortu behar. Haatik, oso gutxitan aztertzen dira biztanle batzuk besteak baino zaugarriago bihurtzen dituzten faktoreak.

-zorigaitza: leku zehatz bat une jakin batean indar handi edo txikiagoz eragin dezakeen eta krisi baten eztandarazle den sekulako jazoera (naturala edo gizakiak eragindakoa). Naturalak izan daitezke lurrikara, uholde, lehorte eta abarrak bezalakoak edo gizakiak eragindakoa, gatazka armatu eta toxikapenetan gertatzen diren modukoak.

-hondamendia: gizartearen funtzionamenduaren nahaste larria, gizakien artean, gauzetan eta ingurugiroan galera handiak eragiten dituen, eta erasandako gizarteak bere baliabideekin bakarrik aurre egiteko ahalmena gainditzen duenak. Gosete, izurrite, biztanleen exodoa eta antzeko fenomeno desberdinetan ager daitezke hondamendien ondorioak.

-zaugarritasuna: gerta daitekeen zorigaitz baten ondorioz familia edo norbanako batek bizia, bere ondasun eta jabetzak, edo bere ogibidea (bizibidea) galtzeko duen arrisku-maila. Talde baten zaugarritasun-maila da zorigaitz natural edo gizatiar batek hondamendia eragin dezan determinatzaile nagusia. Zaugarritasuna funtsezko bi faktorek zehazten dute:

- fisikoki zorigaitzen eraginpean egotea (arriskua)
- baliabideak eskuratzeko irismen mugatua izatea: diru-sarrera eta erreserba eskasia, bizibide-sistemaren segurtasun-gabezia eta babes-gabezi pertsonala.

Laguntza humanitarioko egoera batean edozein jarduerak hiru aukera izango ditu orduan:

- zaugarritasunean ez eragitea, "janaria gaurko gosea biharko" errezeta zaharra.
- herrialdearen garapena sustatuz zaugarritasuna murrizten laguntzea.
- kasurik txarrean, zaugarritasuna areagotzea.

Hauxe litzateke, adibidez, barne-mailan aski erreserba dituen herrialde batean, kanpotik elikagaien sarrera masiboa ematearen kasua. Honek bertako merkatuaren desoreka eta epe luzera herritarren elikagai-segurtasuna arrisku handiagoan jar lezake, kanpokoekiko menpekotasuna indartuz.

Zaugarritasuna aztertzeak errealitatea, egoeraren arabera bakarrik ez, baino egitura-ikuspegitik ere aztertzea ahalbidetzen du, zio sakonei erantzuz eta ez bakarrik sintomak arinduz.

NOIZ ARTE ITXARONGO DUGU?

Baina, non daude haur gosetiak? Hemen ez da jendea gosez hiltzen ari. Ez dago zer kontatzerik. Bere irakurleei "gosete berri bat" kontatzeko helburu argiarekin Erromatik bidaiatu duen kazetari italiar batek adierazten du kexa. Etsita dago. Benetan, eszena oraingoan desberdina da. Pobrezia, eskekotasuna, erregutzen duten aurpegiak egon badaude, baina ez dago hildakorik. Ezen Etiopian ez baitago goseterik. Oraindik. Baina egongo da, baiesten dute Gobernuak eta NBEren Elikagaien Mundu Programak, non eta muturreko zaugarritasun egoeran dauden hamaika milioi lagunek ez duten laguntza jasotzen 2003an zehar.

EFE berri-agentzia 2002-12-14

"Telebistan hezur huts diren haurrak ikusi arte ez mobilizatzeke joera du jendeak, baina orain hori ikusi beharra saihesteko ari da eskatzen laguntza, hain zuzen", dio

INTERMON OXFAMeko Diana Casellasek.

MAURITANIA
139 GGA
2,6 milioi biztanle.


BALIABIDE NATURALAK
urrea, igeltsoa, kobrea, fosfatoak, arrantza, petrolio, burdina.
OSAKETA SEKTOREKA (BPGaren %)
nekazaritza: 50%
industria: 10%
zerbitzuak: 40%

ERITREA
148 GGA
3,5 milioi biztanle.

BALIABIDE NATURALAK
urrea, potasa, zinka, kobrea, gatza, agian petrolio eta gas naturala, arrantza.
OSAKETA SEKTOREKA (BPGaren %)
nekazaritza: % 17
industria: % 29
zerbitzuak: % 54 (2001)

ETIOPÍA
158 GGA
61,4 milioi biztanle.

BALIABIDE NATURALAK
urre, platino, kobre, potasa eta gas natural erreserba txikiak, energia hidroelektrikoa.
OSAKETA SEKTOREKA (BPGaren %)
nekazaritza: %52.3
industria: %11.1
zerbitzuak: % 36.6 (2000)



ZAMBIA
143 GGA
10,2 milioi biztanle.

BALIABIDE NATURALAK
kobrea, kobalto, zinka, beruna, ikatza, esmeraldak, urrea, zilarra, uranioa, energia hidroelektrikoa.
OSAKETA SEKTOREKA (BPGaren %)
nekazaritza: % 24
industria: % 25
zerbitzuak: % 51 (2000)

MALAWI
151 GGA
11 milioi biztanle.

BALIABIDE NATURALAK
kare-harria, ereiteko lurra, energia hidroelektrikoa, ustiatu gabeko uranio, ikatz eta bauxita deposituak.
OSAKETA SEKTOREKA (BPGaren %)
nekazaritza: % 40
industria: % 19
zerbitzuak: % 41 (2000)

ANGOLA
160 GGA
13,1 milioi biztanle.

BALIABIDE NATURALAK
petrolio, diamanteak, burdinezko minerala, fosfatoak, kobrea, feldespatoa, urrea, bauxita, uranioa
OSAKETA SEKTOREKA (BPGaren %)
nekazaritza: 85%
industria eta zerbitzuak: 15% (1997 est.).
BPGaren %
nekazaritza: 6%
industria: 70%
zerbitzuak: 24% (2000 est.)

ZIMBAWE
117 GGA
12,4 milioi biztanle.

BALIABIDE NATURALAK
ikatza, kromoa, amiantoa, urrea, nikela, kobrea, banadioa, litioa, eztainua eta platinoren taldeko metalak
OSAKETA SEKTOREKA (BPGaren %)
nekazaritza: % 11
industria: % 14
zerbitzuak: % 75 (2000)

MOZAMBIKE
157 GGA
17,9 milioi biztanle.

BALIABIDE NATURALAK
ikatza, titanioa, gas naturala, energia hidroelektrikoa, tantaloa, grafitoa
OSAKETA SEKTOREKA (BPGaren %)
nekazaritza: % 33
industria: % 25
zerbitzuak: % 42 (2000)

SWAZILANDIA
113 GGA
0,9 milioi biztanle.

BALIABIDE NATURALAK
ikatza, asbestoak, buztina, kasiterita, energia hidroelektrikoa, basoak, urre eta diamante meategi txikiak, harrobiak eta talkoa
OSAKETA SEKTOREKA (BPGaren %)
nekazaritza: % 10
industria: % 43
zerbitzuak: % 47 (1999)

LESOTHO
120 GGA
2 milioi biztanle.

BALIABIDE NATURALAK
ura, ereiteko lurra, diamante eta beste mineral batzuen erazketa batzuk.
OSAKETA SEKTOREKA (BPGaren %)
nekazaritza: % 18
industria: % 38
zerbitzuak: % 44 (2001)

Lehortea baino gogorragoa:

Lehortea baino gogorragoa:



Kanpo-zorraren oztopoa Zorrak kostu finantzario eta sozialak ditu Hegoaldeko herrialdeentzat. Nazio Batuen Garapenerako Programaren (NBGP) arabera, herrialde zorpetuenetako batzuk giza ongizatearen adierazle baxuenak dituzte. Herrialde hauek beste herrialde txirotu batzuk baino haurren heriotza, analfabetismo eta gaizki elikatutakoena tasa altuagoak dituzte. NBGParen arabera, Saharaz beheko Afrikako gobernuek euren herrien osasunaren alde gastatzen dutenaren halako lau transferitzen diete Iparraldeko hartzekodunei. Zambian, adibidez, Estatuko aurrekontuaren laurden bat joaten da zorra ordaintzean.

HIES-a, patenteen oztopoa 29 milioi afrikar inguru bizi da Giza Inmuno-eskasiaren Birusarekin (GIBarekin). Hauetatik, 30.000k bakarrik jasotzen dute tratamendu erretrobirala. Hau da Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) ezarritako patente-sistemaren ondorioz sendagaiak duten prezio altua ordaintzeko gai direnen kopurua. GIB/HIESaren eragina oso-oso handia da Afrikako herrialde askotan, batez ere produkzio-adinean dauden pertsonak kolpatzen baititu hainbat haur umezurtz utziz. Mehatxua GIB/HIESaz haratago doa. Malaria, pneumonia, zիրineria eta tuberkulosia bezalako gaixotasun hilgarri nagusiak sendatzeko baliagarri litezkeen botikak ere patentatuta daude. HIESaren aurkako tratamendu patentatuaren prezioa bere baliokide generikoarekiko baino 3-tik 15-era bitartean biderkatu ahal da. Prezioa Zambian, adibidez, haur-pneumonia bat tratatzeak familia baten hilabeteko aurrekontuaren erdia balio dezake.

Nazioarteko merkataritzaren zuzengabekeria Munduko Bankua (BM) eta Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) bezalako Nazioarteko Finantza-Erakundeen eta Iparraldeko emaile nagusien politikek ere badute zerikusirik krisi honetan. Azken 15 urteotan, Nazioarteko Finantza- Erakundeek nekazaritza-erreformak inposatu zizkieten afrikar herrialde askori pobrezia edota elikagai-segurtasunean nola eragingo zuten aintzat hartu gabe: Hegoaldeko nekazarietako diru-laguntzak debekatu zituzten bitartean, sekulako dirutzak bideratzen jarraitzen dituzte AEBetan eta EBean euren nekazariak laguntzeko; merkatuak zabaltzera behartu zituzten eta Iparraldeko inportazio merkeztan gainezka daude orain; aldi berean kafea bezalako funtsezko produktuen egonkortasuna bermatzen zuten nazioarteko hitzarmenak eraitsi zituzten. Elikagai-segurtasuna hobetu ordez, BM eta NDFaren politikek sekula baino egoera zaurgarriagoan utzi dituzte Hegoaldeko nekazariak. Afrikak munduko esportazioetan duen partehartzea %1ean handituko balu, eskualdeari laguntzaren bidez ematen zaion kopurua bostez biderkatuko luketen diru-sarrerak sortuko lituzke eta honek zorra arintzea ahalbidetuko luke.

Multinazionalak, krisiaren onuradun Munduko Bankuak eta NDFk merkataritza liberalizatzeraz eta euren "konparazio-abantaila" guneetan esportaziora bideratutako hazkundera bultzatu dituzte herrialde txirotuak. Baina herrialde hauek zepoan harrapatuta daude orain, saltzen dituzten lehengaiak supermerkatuetako apalategietara produktu amaitu bezala iristen direnean eskuratutako balio gehituaren arrastorik ez baitute jasotzen. Etiopia bezalako herrialde baten diru-sarreraren % 60-a dakarren kafearena da kasurik adierazgarrienetako bat. Gaur egun, kafearen prezioak munduko merkatuetan izan duen beherakadaren ondorioz zorra arintzeagatik aurrezten duenaren bikoitza galtzen du Etiopiak. Herrialdeak elikagai-krisiak dakartzan egiturazko arrazoen aurka borrokatu ahal izateko dituen aukerak eta egungo egoera arinduko luketen berehalako neurriak hartzeko aukera murrizten ditu diru-sarreraren galera honek. Bitartean, Nestle, Kraft edo Sara Lee bezalako multinazional handiak egunez egun aberasten dira produktu honen salmentekin.

Lurraren jabetza eztabaidan Nekazaritza da herrialde afrikar askotako ekonomiaren oinarria. Eta horregatik eztabaidatzen da haietako askotan lurraren jabetza, nekazari askoren egoera baldintzatzen baitu. Zimbawerentzat kanpo-sarreraren % 60-a baino gehiago dakar nekazaritzak. Hala ere, lurraren birfinkatzerako gobernu-programarekin batera doazen alde sozio-politikoek nekazaritza-produkzioaren gainbehera eragin dute. Lurraren jabetzari buruzko arrazagatiko desberdintasunak daude arazoaren erdi-erdian: 4.500 baserritar zuri erein daitekeen lur onenaren 11 milioi hektarearen jabe diren bitartean, 12 milioi beltz gutxien ematen duten lurren 16 milioi hektarearen jabe dira. Etiopian ere lurraren jabetzari buruzko eztabaida gori dagoen gaia da, nahiz eta aurreko kasuaz bestelako norabidean izan. Gaur egun, gobernuak da herrialdeko lur guztiaren jabe eta hektarea bateko lursailak banatzen zaizkie nekazariari. 65 milioi etiopiarretatik % 85-a inguru bizi da nekazaritzaren menpe eta asko dira eriteko lur gehiago eskatzen dutenak. Ikerlari batzuk uste dute lurra nekazariaren balira hauek gehiago inbertituko luketela beraietan. Beste batzuk, aldiz, jabetza pribatua jotzen dute diferentzia sozialen eragile eta nekazari txiroenen baztertzeara eragotziko lukeela uste dute.

Barne-migrazioak Lehorteak eta ondoriozko elikagai-krisiak jotako herrialde gehienetan asko dira landaguneetatik hirietarantz lan bat edo janaria aurkitzeko itxaropenez herrisketatik ihesi migratzen ari diren pertsonak, gizonezkoak nagusiki. Bakarrik gelditzen dira emakumeak herriska askotan eta zailtasun handiak dituzte euren familiak elikatzeko: elikagai segurtasun-eza pairatzen duten familietatik % 39-a da orain emakumea bakarrik duena buru.

Eta bitartean nazioarteko elkarteak ... Eta bitartean nazioarteko elkarteak ...



Erroman Elikadurari buruzko Mundu Gailurrean bildutako Estatu eta Gobernu-Buruok beranduenera 2015 urterako munduan gosea diren lagunen kopurua erdira murrizteko gure mundu-konpromisoak berritzen ditugu, Nazio Batuen Milurteko Deklarazioan berretsi zen moduan.

FAOren Elikadurari buruzko Mundu Gailurreko Deklarazioa, 2002ko ekainaren 10-13an

Krisi honen ezandarazlea lehortea izan bada ere, pobrezia da benetako zioa, eta hau herrialdeko nekazaritza-politikarekin estuki loturik dago. Jendearen zaugarritasuna hain da handia ezen eurite-urtaro batek huts egitea nahikoa baita txiro izatetik zorigaiztoko izatera pasa daitezten. Euria egin ala ez, kondenatuta daude.

Berahanu Niega, Politika Ekonomikoko Ikerkuntza-Institutu Etiopiarreko zuzendaria

Gosearen aurka bazaude genetikoki aldatutako elikagaien alde egon behar duzula dioten enpresa multinazionalen teoriaren aurka nago. Gaur egungo gizateriaren bikoitza elikatzeke adina aski janari natural, normal eta on badago munduan.

Jean Ziegler, Nazio Batuen ikerlaria, BBC 2002-11-14

Ekonomiak zartada handia hartu du kafearen krisiaren ondorioz. Duela hilabete batzuk, gobernu etiopiarren txosten ofizial batek baieztatzen zuen kafea eta laboreen prezio-beherakadak ekoizle txikiengan izango zuen eragina zela Gobernuaren aurtengo buruhauste handiena.

ABC, 2002-12-8

Nestlek sei milioi dolar galdatzen dizkio Etiopiari gosete betean. 1975ean elkarte bat nazionalizatzeagatik kalte-ordainketa eskatzen du multinazionalak. Nestlek sei milioi dolar, bere urteko sarreraren % 0,007aren baliokidea, galdatzen die Etiopiako agintariei, gosete handiari aurre dagion eta lehorteak eta kafe-merkatuaren krisiak gogor astindu dituen herrialdea izan arren.

El País, 2002-12-18

Davidek Goliat garaitu du. Nestlek Etiopiaren aurkako eskaera murriztu eta herrialdea 1,5 milioi dolarrekin laguntzea erabaki du. Kausa galduen alde jarduteko arma baketsu bilakatu da internet. Arrakastaz bilakatu ere. Duela hilabetetik hona, 40.000 postako olde elektronikoa jausi da Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia eta Espainiatik elikagai-industriako erraldoia den Nestleren gainera. Internautek, Intermon Oxfamek suspertuta, lehorteak astindutako Etiopiari sei milioi dolarreko erreklamazioan amore eman zezan erregutzen zioten talde suitzarrari.

El País, 2003-02-25

Zambian osasun publikoa pribatizatzea goستن du Mundu Bankuak: "Eredu bat da Afrikarentzat. Jada ez dago ilararik ospitaleetan". The Zambia Post egunkariak borobiltzen du ideia: "Jada ez dago iladarik ospitaleetan, jendea bere etxean hiltzen baita".

Eduardo Galeano

Gida didaktikoa

Gida didaktikoa

Eransten dugun proposamen didaktikoa bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendua dago. Jarduerak baliagarriak izan daitezke gizarte-zientziak, etika, tutoretzak, ... bezalako arloetarako, zein gaian interesa duen edozein irakaslerentzat.

Proposamen honen xedea lehorreak gosetea eragin dezan ematen den faktore aniztasun itzela aztertu eta ezagutzea da.

EGILEAK: CLARA BASTARDES ETA MIREIA ALIART.

1.go Ariketa

Kaleidoskopioan barna

Helburua: Estereotipoak apurtzea herrialde berean elkarrekin bizi diren errealitate desberdinak erakutsiz. Etiopiari buruzko bi irudi ongi diferentziatu eta asko kontrastatu dira: Nilo ibaia, lur emankor eta nekazaritza-produkzioarekin, eta basamortu-eremua.

2. Ariketa

Euriak huts egiten duenean

Helburua: Etiopiako alderdi geografiko, sozial eta ekonomikoa batzuk ezagutzea. Eskuratutako informazioa eta komunikabideetatik iristen zaiguna alderatzea. Krisia pobrezia-egoerari gehitzen zaion eta egiturazkoagoa den zaugarritasunaren ondorio dela eta zuzenean eragiten dituen uneko lehorte baten ondorio dela ohartzea.

Orientabideak: (4) Ariketarekin herrialdeaz jada zer dakiten ohartarazi. (5) ariketak herrialdeari buruzko informazio zehatzagoa bilatzeko balioko du. Garrantzitsua da datu hauek edukitzea gainerako ariketak burutu ahal izateko eta, horrela, Etiopian labore, eremu emankor, abeltzaintza, esportazioko produktu aniztasuna eta klima-urtaro desberdinak badirela jakiteko. (6) Izenburuekin Etiopia uneko krisi egoeratik dela albiste komunikabideetan ohartaraztea da gure xedea. (7) Konparaketatik abiatuta uneko faktore bakar bat, klimatikoa, herri baten biziraupenerako hain erabakigarria izatea nola den posible azaltzeko galderak zabaltzea. Etiopian gosearen zioei buruzko alde aurretiko ideiak seinaltzea.

3. Ariketa

Zergatik dago gosea Etiopian?

Helburua: Egoera honetan eragiten duten zio batzuk aztertu eta ezagutzea eta biztanleengan dituzten ondorioekin alderatzea. Egungo krisiaren atzean hain agerikoak ez diren eta egoera honetan eragiten duten elementuak badirela ohartaraztea.

Orientabideak: (8) Testuan aztertuko dituzten zioek hondamendi naturalen aurrean (kasu honetan lehorte) biztanleek eta herrialdeak duten zaugarritasuna erabakitzen dute. (9) Ariketan testigantzak zehazten diren kontzeptuekin erlazionatu behar dira. Kontuan hartu testigantza batzuk zio desberdinekin lot daitezkeela.

(10) Ariketa erabakiak hartzeko jarduera gisa proposatzen da. Lehenengo kasuan, familiak aurkituko duen arazo nagusienetako inguruko beste jendea egoera berean egotea izango da.

Eskualdeko merkatuan abereen eskaintza handia izango da eta honek prezioek behera egitea eragingo du. Ondorioz, gelditzen zaien baliabide bakarra merkeegi salduko dute. Familiak balia ditzakeen beste aukera batzuk saltzeko egur bila joatea edo hirietara alde egitea dira.

Bigarren kasuan, kafe ekoizle txikien familiak aldian-aldian eskuratzen zituen lantzen zuten kafearen irabaziak. Ateratzen zutenarekin eskola, jantzia eta elikagai batzuk ordaintzen zituzten. Bost urtetik hona sarrera horiek nabarmenki jaisten joan dira. Gaur egun, autokontsumorako erabiltzen duten lursail txikiari esker elikatzen dira. Aurtun kafea oraindik prezio baxuagoan saldu dute eta, ondorioz, ez da kasik dirurik sartu familiako ekonomian. Eskola ordaindu, jantzia erosi edo euren funtsezko dieta osatu eta ez gaixotzeko beste elikagai batzuk erostearen artekoa da erabakia.

3 egoerak bere herrialdearen garapenean inbertitzeko aski bitartekorik ez duen gobernu txirotu baten kasua adierazten duen adibidea da. Bere esportazioko produktu nagusiaren diru-sarrerak modu asaldagarrian murriztu direnez, gobernuak nekez konpon ditzakeen uzta txarren ondorioak jasaten ari dira herrialde honetako biztanleak. Gobernu etiopiarrek kanpo-zorren ordainketa atzeratzea eskatu eta diru hori laboreak erosteko erabil dezake. Etorkizunean, gobernu honek nekazaritza sektorearen garapen-politika bat pentsatu beharko du aurtengoaren moduko egoerak saihesteko.

(11) Ariketa laburpen-jardura bezala proposatzen da, (7) ariketan egindako galdera hartuz berriro mintzagai. Gomendagarria da erantzunen arteko desberdintasunak sor ditzaketen hausnarketak amankomunean jartzea.

4. Ariketa

Eta guk, zer egin dezakegu?

Helburua: Uneko egoera baten aurrean ikasleen izpiritu kritiko eta partehartzailea sustatzea. Txirotasuna eragiten duten zioen aurrean jarrera kritikoak bultzatzea.

Orientabideak: Sakoneko lau gai proposatzen dira eztabaidarako. Ikasleak lau taldetan bana daitezke edo denak hartu euren gain. Talde bakoitzak hormirudi moduan aurkeztu eta azaldu beharko ditu bere ondorioak gainerako ikasleekin aurrean.

Gehiago jakiteko:

Gehiago jakiteko:

Bibliografia:

Zaugarritasuna eta hondamendiak. Afrikako krisiaren egitura-zioak eta prozesuak

Pérez de Armiño, Karlos
HEGOAren lan-koadernoak 24 zenb., Bilbo

Economic Report on Africa 2002 Tracking performance and progress

Addis Abeba
Economic Commission for Africa, (2002)

Web orriak:

Web orriak:

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea

www.fao.org/inicio.htm

Nazio Batuen Garapenerako Programa

www.undp.org/spanish

Ingelesez

www.fews.net

(Famine Early Warning System de USAID)

www.bbc.co.uk/worldservice/focusonafrica

(BBC)

Gure web-ari bisita egin eta global express-a deskarga ezazu!!

www.IntermonOxfam.org/educar/global



Global Express ikasleek euren buruari hedabideek diotenari buruz galdetzeko da. Errealitatea aztertzeko ikuspegi kritikoa bultzatu nahi du, munduaren egoera eta, batez ere, garapen bideko munduaren egoera ulertzeko gauza izan daitezten.

Global Express honako hauen ekimena da: Development Education Project (Erresuma Batua), Panos Institute (Erresuma Batua), Curriculum Development Unit (Eire), Centrum voor Mondiaal Onderwijs (Holanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) eta Intermón Oxfam (Espainia).

Global express

Gaurkotasuna ikasgelan

Etiopia: Lehorteaz haratago

1.



1

2



1. Idatz itzazu 1. go argazkiak iradokitzen dizkizun 5 hitz.

2. Idatz itzazu 2. argazkiak iradokitzen dizkizun 5 hitz.

3. Zein lekuri uste duzu dagozkiola irudi hauek?

2. Euriak

huts egiten duenean



Herrialde berri bat aurkitzera gonbidatzen zaitugu ...

4. Zer dakizu Etiopiaz? Idatz itzazu herrialdeaz duzun ideia azaltzen duten bost hitz.

5. Bila ezazu Etiopiar buruzko ondoko informazioa.

Azalera:
Biztanleak:
Hiriburua:
Hizkuntzak:
Ibai nagusiak:
Klima:
Bizi-itzaropena jaiotzean:
BPG:
Sektore ekonomiko nagusiak:
Labore nagusiak:
Esportazioko produktu nagusiak:

Hemen aurki dezakezu: www.encarta.com eta www.guiadelmundo.org

6. Irakur itzazu arretaz izenburu hauek eta aldera itzazu aurreko jardueran eskuratutako informazioarekin.

Lehortea eta elikagai ezak hondamendi berri bat iragartzen dute Etiopian

LA VANGUARDIA, 18/11/2002

Etiopian, lehenengo behiak hiltzen dira, gero ahuntzak eta ondoren gizakiak

EL PAIS, 6/12/2002

Posible da 11 milioi lagun hiltzea gosez Etiopia eta Eritrean; bitartean, EEBB-en eta AEBen nekazaritza-politikak funtsezko zenbait produkturen ekoizpena geldiarazi eta soberakin batzuk suntsiarazten ditu.

EL PERIODICO, 24/11/02

7. Zergatik uste duzu iritsi dela egoera honetara Etiopia, "Afrikako bihitegia" ere deritzona?

3. Zergatik dago gosea Etiopian?



Orain badakizu Etiopiako gosearen zioetako bat lehortea dela, baina badira beste batzuk ere. Jarrai ezazu herrialdea gure egunkarietan albiste izatea eragin duten zioak zeintzuk diren ikertzen.



8. Irakur ezazu arretaz ondoko testua eta azpimarra itzazu egun Etiopiak bizi duen egoeran eragin dutela uste duzun zioak.

Etiopiaren paradoxa Afrika osoko bihitegia izan litekeela da. Jada 1984 eta 2000 urteetan lehorte gogorrek jasan izan ondoren ere, labore mota zabala eta munduko kaferik onenetakoa produzitzen duten lur oso emankorrak daude. Etiopia abelburu gehien dituen herrialde afrikarra da, gainera. Herrialdeko ekonomiak sekulako beherakada jasan du kafearen krisiaren ondorioz. Duela hilabete batzuk, txosten ofizial batek baieztatzen zuen: "Kafea eta laboreen prezio-beherakadak ekoizle txikiengan izango zuen eragina zela gobernuaren aurtengo buruhauste handiena". Gobernuaren kalkuluen arabera, ia 15 milioi familiaren biziraupena dago labore honen menpe, baina prezioa aurten amildu egin da. Nazioarteko merkataritzaren lege zorrotzek txirotasuna azkartu dute.

Niegak, Politika Ekonomikoko Ikerkuntza-Institutu Etiopiarreko Zuzendariak uste du "elikagai-krisi honen ezandarazlea lehortea izan bada ere, txirotasuna dela bere benetako zioa, eta hau herrialdeko nekazaritza-politikarekin estuki lotuta dago".

"Nekazaritza sektorearen garapenerako inbertsio-gabeziak eta kafearen prezioaren beherakada eta kanpo-zorren ordaintzaren ondorioz ahuldutako gobernuak, erabateko zaurgarritasun-egoeran utzi dute Etiopia", azaltzen du Diana Casellasek, Etiopian *Intermon Oxfam erakundeak duen borondatezko lankideak.



9. Lagun etiopiarren iruzkin desberdinak aurkezten dizkizugu. Lot ezazu lekuko bakoitza ondoko kontzeptuetako batekin:

1. Bete gabeko funtsezko premiak.

"Uztailetik bi egunez bakarrik bota du euria", azaltzen du Tshoma Abera, nekazari etiopiarra.

2. Nekazaritzako azpiegituren gabezia.

"Aziendak ez du ia urik edaten eta argal eta ahul daude. Familia guztiak saiatzen gara hau saltzen diru gehiago eskuratzeko eta jateko alea erosi ahal izateko". Asiya Ali, afar abeltzaina.

3. Gobernu ahuldua.

"Gobernuak ez du bitartekorik berak bakarrik aurre egiteko krisi honi". Meies Zenawi, Lehen Ministro etiopiarra.

4. Lehorte.

"Kanpo-zorra 80ko hamarkadan 1.800 milioi dolarrekoa zen, gaur egun 5.600 milioi dolarrekoa da". Berahanu Niega, Politika Ekonomikoko Ikerkuntza-Institutu Etiopiarreko Zuzendaria.

5. Kanpo-zorra.

"Kafea merkeago saldu behar dugunez, jada ezin dugu ez jantzirik erosi, ez medikuntza-gastuak ordaindu, ezta gure seme-alabak eskolara bidali ere. Gutariko askok idiak eta ahuntzak oso prezio baxuan saldu behar izan ditugu. Denok saiatzen gara landatzen dugun artoa janez bizirauten". Kafe ekoizle etiopiar txikiak.

6. Kafearen prezioaren beherakada.

"Zenbat eta pobrezia gehiago, lurrean, hazi gehiagotan, ureztatze-sistematan ... inbertitzeko diru gutxiago eta, ondorioz, uzta kaskarragoak". Kelil Golie, Landatar Garapeneko bulegoko Burua.



Ezagutzen dituzu Etiopian gosea eragiten duten zioetako batzuk, eta baita goseak biztanleengan dituen eraginetako batzuk ere.

10. Emazu orain Etiopian bizi zarela eta ondoko pertsonaia hauetako bat zarela. Irakur ezazu arretaz zein egoeratan dauden eta erabaki ezazu zer egingo zenukeen zuk.

1. go egoera: **Nekazari familia**

Artoa landatzen duzuen lursail txiki bat lantzen duzuen familia bat zarete. Hamar behi ere badituzue, gainera. Aurten ez du euririk egin eta, ondorioz, uzta oso txarra izan da. Saldu eta erostera joaten zareten merkatuan artoaren prezioaren igoera ekarri du honek.

- Zein aukera dituzu? (Inguruko elkarte desberdinetako familia guztiak egoera berean daudela pentsatzen duzue).

2. egoera: **Kafe-ekoizle txikiak**

Kafea saltzeko lantzen duzuen familia bat zarete, eta lursailaren zati txiki bat iraupeneko laboreari ematen diozue (artoari, funtsean). Duela zenbait denboratik hona, pasatzen den urte bakoitzeko, kafea erosten dizuen enpresak diru gutxiago ordaintzen dizue kantitate berdinatik. Lehen irabazten zenuten diruarekin zuen seme-alaben (bost dituzue) eskola, jantzia eta beste elikagai batzuk ordain zenitzaketen. Aurten, kafearen prezioa hain izan da baxua ezen ez baitzaizue iristen gastu guztiak estaltzeko.

- Zer egin dezakezue?

3. egoera: **Gobernu etiopiarra**

Egungo gobernu etiopiarreko kide zarete, putzu, errepide, eskola, ospitaleen ... eraikuntzan inbertitu ahal izateko aski dirurik ez duen gobernu txirotu baten kide. Zuen diru-sarrerak kafearen esportazioaren araberakoak dira funtsean, baina produktu honen prezioa amildu egin da azken 5 urteotan. Beste herrialde aberatsagoei kreditu garrantzitsuak eskatzen joan zarete, gainera, eta argi dago, urtero zorra korrituak barne ordaintzera behartuta zaudete. Oraindik duela 5 urteko kredituak zor dizkiozue Mundu Bankuari ... Orain, zuen herrialdeko biztanleak uzta txarreko urte baten ondorioak jasaten ari dira.

- Zer egin dezakezue egungo arazoa bideratzeko?
- Zein politika gara zenitzakete etorkizunean?

11. Irakur ezazu berriro 7. jarduera eta galderak berriro erantzuten saia zaitetz. Zer aldatuko zenuke orain?

4. Nork laguntzen du nor?

12. Eztabaida itzazue adierazpen hauek eta denon artean atera itzazue ondorioak.

- Hirugarren Munduko herrialde txirotuek herrialde aberatsei kanpo-zorra ordaintzeari utziko baliote, diru hau nekazaritza-sektorea garatu eta funtsezko premietarako inbertitu ahal izango lukete.
- Nazioarteko Merkataritzaren legeek herrialde aberatsei egiten diete mesede. Iparraldea bereak baino merkeagoak diren Hegoaldeko produktu manufakturatatu eta nekazaritzakoek suposa lezaketen lehiatik babesten den bitartean, Iparraldeko produktuek Hegoaldeko merkatuak gainezkatzen dituzte.
- Presio sozialari esker, *Nestle multinazionalak gobernu etiopiarrekin akordio batera iristea onartu du. *Nestlek bere 6 milioi dolarreko erreklamazioa 1'5 milioi dolarrera murriztuko du eta diru hau gosearen aurkako borroka-programetan inbertituko du.
- Iparraldek Hegoaldeari "laguntza" moduan ematen dion guztiaren halako 4'4-a igortzen diete Hegoaldeko herrialdeek Iparraldekoei kanpo-zorraren ordain kontzeptuan.